

Bakea eta bizikidetzarako pausoak. - Larunbatean, Lasarte-Oriako Udalak eta Baketik elkarteak antolatutako Bakea eta bizikidetzaren jardunaldiak amaiara eman zitzaizkien. Azken saio honetan, Open Space-a eta mahai inguruak izan ziren. Villa Mirentxuko trinketera hurbildu ziren herritarrek lehenik mahai-inguruetan jorratu nahi zituzten gaiak aurkeztu zituzten. Batzuk sailkatu eta mahai inguruetan eztabaidatzeko aukera izan zuten. Bi txanda ezberdinetan komunitate ezberdinak eta elkar ezagutzera, biolentziaren biktimak gogora arazteko Lasarte-Oriako egin diren ekintzak, herriko ekitaldietan ideologia ezberdinen pertsonen partehartzea edo bakea eta bizikidetzaren abiapuntu etikoak solastatu ziren. Jardunaldi hauetan ikusi eta ikasitakoa inguruko jendeari eta gazteei jakin araztea ere izan zen mahai inguruetakoa gaitakoa bat. Amaieran, talde bakoitzeko ondorioak jakinarazi eta lanketarekin jarraitzeko pausoak aztertu ziren. Jardunaldiak amaitzean, Lasarte-Oriako alkateak Pablo Barriok jakitera eman zuenez, bakea eta bizikidetzaren lanketarekin jarraituko du, "hiru egun hauetan jende askok bere interesa agertu du eta horregatik, gai hau lantzeko beharra dagoela ikusten dugu".

3 KULTURA

Kukukaren Antzerki eta Dantza astea bide onetik

Aste honetan hainbat izango dira Manuel Lekuonan ikusi ahal izango diren dantza eta antzerki emanaldiak. Ostira-lean Kukukako gazteen Arturo Erregeak txalo zaparrada luzeak eragin zituen. Aurretik, dantza garaikideko gazteek ostira-lean egingo dutenaren zatitxo bat erakutsi zuten.

4-5 GURE ESKU

950 herritarrek osatu zuten 89. kilometroa

Jai giroa nagusitu zen Gure Esku Dago egitasmoak antolatutako giza katean. Lasarte-Oriarrei Uharte-Arakilen zegoen 89. kilometroa betezea egokitzen zitzaizkien eta bertan bildu ziren 950 herritar. Aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen parte hartzea.



EUROMIKEL'S, S.L.



N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com



Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI
ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen,
zergatik hainbeste ordaindu ?

Hiru aukera dituzu :
zuk egiten duzu
zuk gurekin ikasiz
guk egiten dugu

**DEITU ETA ESKATU PREZIOAK
KONPROMEZURIK GABE**

Adituak dio



Intza Alkain
Ikaslea
Zain

Zain. Kurtso luzean zehar egon gara momentu honen zain. Neguko bufandapean eta aterkipean orduak eman ditugu garai honetan egingo ditugun planak praktikara eramateko ordua noiz iritsiko zain. Baina adi! Iritsi da eta zain egoteari utzi eta gozatzan hasteko garaia! Iritsi da udara!

Baina behin guztiok desiratzin dugun garai epel eta koloretsua gugana helduta, ez al diogu geure buruari ondorengoa galdeetzen? Eta, orain, zer? Izan ere, kurtsoan zehar plan ugari zehazten ditugu udarako (kurtsoaren apur bat izan eta hala porai exigentzia piska bat eskatzen duten planak.

Baina, hala ere, bada presiorik gabe erraztasunez aurrera eramaten dugun plan mota bat: jaiak! Jaietara joateko ez dugu aitzakiarik jartzen eta san eta santa egun guztiak gozatzan ditugu herriz herri. Bueno egia esan askok santuen omenez ez ditugu ospatzen baina benetako sinistuen debozio berdinarekin joaten gara parrandara! Parrandaren alde edo parrandan guztia ematera! Azken finean, horrenbeste denboran udararen zain egon ondoren, planen bat behintzat egin beharko dugu ezta?

Oporrak ate joka

Oporretan pentsatzea oso goiz da askorentzat baina etxeko haur eta gazteek bertan ditzute. Aste gutxi batzuk falta zaizkie ikasturtea amaitzeko eta azterketak gaindituta, bi hilabete luzeko oporrez gozatzeko aukera izango dute. Esan behar da ere, dagoeneko batzuk oporretan daudela dena lehenengoan gaindituta...

Garai batean, oporraldian lan pixkat egitea aukeratzen zuten gazteek. Sosa batzuk irabazi eta udako festa eta parrandetan edota lagunekin opor batzuk egin ahal izateko eskola partikularrak, umeak zaintzen, zerbitzari lanetan jardutea ohikoa zen.

Egun ordea, beste hamaika aukeren artean, lanarena ez da errazen dagoena.

Batzuek atzerrian egonaldia bilatzen ditzute batez ere

ingelesa ikasi edota hobetzeko. Bestelako ikastaroak egiteko ere aprobetxatzen dute edota, auzolandegiak dira beste aukeretak bat ikasketak eta lan praktikak uztartzeko moduz bezala.

Hala ere, ez da ahaztu behar oporrak deskantsatu eta gozatzeko direla. Ikasturte osoan zehar egindako lan gogorraren ostean, merezitako atseden. Aritu askok oporretan ikasten jarraitzeari tartetxo bat egitea begi onez ikusten dute, batez ere goizean lan pixkat egitea, baina ez gehiegi. Ikasturtea indar eta gogoz ekiteko beharrezkoa omen delako deskantsua.

Oporrak ate joka ditugu eta konturatzerako iritsiko zaizkigu San Pedro jaiak. Hauetarako ziur ere indarrak hartu beharko dituztela herriko haur, gazte zein helduek.

Hemeroteka

Duela 988 ale

2001eko uztailaren 20ko alean, Udako oporrak: atseden ala eromena? erreportajea egiten genuen TXINTXARRI-n.

Honetan herritarrek oporretarako zituzten planak jasotzen ziren. Batzuk herrira joateko asmoa azaltzen zuten beste batzuk etxean geratzeko asmoa eta gutxi batzuk atzerrian oporraldia egingo zutela azaltzen zuten.

Horrekin batera, oporrak lanerako egokiak zirela aipatzen zen: "ikasturtea amaitu duten ikasle askok uztailako edo abuztuko egunak aprobetxatzen dituzte lan egin eta sos batzuk ateratzeko".

Hala ere, INEMeko datuek erakusten zuten orduan lan horiek ez zutela zuzeneko eraginik langabezia tasan. "udan ez du hainbesteko eraginik izaten langabetuen kopuruan, gainerako hilabeteekin alderatuz gero. Hilabete hauetan badira lana lortzen dutenak, baina beste hainbestek ematen dute izena INEMeko zerrendetan, ikasturteko kontratua amaitu zaielako".



1955.urteko jaietako argazkia Tomas Fernandezen bildumatik aterata.


Iruditan

Jaietarako prest

Aste gutxi batzuk geratzen dira San Pedro jaietarako. Zabaleta auzokoak izan ziren lehenengoak eta orain uda garaia hasita, herriz herri ibiliko dira Intzak esan bezala herriko gazteak. Ekintza egitaraua aste honetan aurkeztuko da baina ohi bezala, ekintzak izango dira herritar guztientzat, haur, gazte zein heldu. Okendo plaza beteko dute herritarrek beste urte batez ziur. Garai batean ere herritarrek plazara ateratzen ziren festaz gozatzeko, edozein aitzakia zen ona. Jokoak, dantza emanaldia, dantzaldia, bertsolariak...

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:
Nerea Eizagirre, Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@takun.com
administrazioa@takun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

KULTURA



Arturo Erregea antzezlan aurkeztu zuten Kukukako gazteek ostiralean kultur-etxean.

Zer nahi du emakumeak?

Kukukakoen Arturo Erregea antzezlan izan zen ostiralean

Kukukaren antzerki eta dantza astearen baitan, ostiralean Arturo Erregea antzezlan ikusi ahal izan zen Manuel Lekuonan. Arturo gaztea zigortua ez izateko emakumeak zer nahi duen galderari erantzun behar izan zion. Horretarako senide eta sorgina Pirulinaren laguntza izan zuen. Gaur berriz, LH4 eta LH5eko ikasleen antzerkiak ikusi ahal izango dira 19:00etan.

TXINTXARRI

Manuel Lekuonan Kukukako artisten trebetasuna ikusi ahal izan zen beste behin. Emanaldiari hasiera emateko, dantza garaikideko gazte taldeak dantza bat eskaini zuen. Hauek ekainaren 13an aurkeztuko dute euren saioa.

Jarraian, Arturo Erregea

antzezlan ikusteko aukera izan zen. Gazteek Asier Sotaren gidaritzapean, antzerki berritzaile eta dibertigarria eskaini zuten.

Ezustekoz betetako lana izan zen. Arturo bere lagunarekin ehizan ari dela, oreina bat hiltzen du. Erregearen lurretan izan denez, urte betean galdera bati erantzuna bilatu beharko dio zigortua ez

izateko. Emakumeak zer nahi du?

Senide eta Pirulina sorginaren laguntza eske joango da Arturo eta azkenean eran-tzuna ere aurkituko du.

Aktoreek oholtzan ez zuten inongo elementuren beharrik izan, eurek antzeztu zituzten oreinak, txakurrak, aulkia, landareak... ikusleak harritzea lortu zuten.

Irribarre ozenak entzun ziren eta txalo zaparrada luzearekin eskertu zitzairen lana. Asier Sota zuzendaria amaieran ikasleekin batera oholtzara igo eta Joxe Mari Agirretxerekin batera ikasturteko lan ona aitortzen duen diploma banatu zien.

IKASTAROA

Bitxigintza ikastaroa izan zuten AEK-ko ikasleek

Ostegunean, bitxigintza ikastaroa jaso zuten AEK Munterri euskaltegiko ikasleek. Ikastaroa goizez eta arratsaldean egiteko aukera izan zuten Agara Agirrearen eskutik. Bitxiak egiteko garaian jarraitu beharreko lana, zein lan tresna erabiltzen dituzten,... ikasleek ikasitakoa praktikan jarri zuten eta bakoitzak diseinu ezberdinak egin zituen.

Gauza asko ikasi zituzten baina batez ere, eurek aipatu bezala, bitxi bat egiteak duen lanaz jabetu.



UDALA

Ohiko batzarra asteartean

Hilabeteko bigarren astea izanda, bihar, asteartea 18:30ean ohiko udalbatzarra izango da. Honetan Alkatetzako dekretuaren kontu emango da, udal plangintzako aholku batzordeko kideen izendapenari buruzkoa hain zuzen.

Jarraian PSE-EEK aurkeztutako mozioa eztabaidatu beharko dute alderdiek, "Auzo azokari buruzkoa". Bilduk ere mozio bat aurkeztuko du euskal kutxen etorkizunari buruzkoa. Azken puntu galdera eta erreguen txanda izango da. Bilkura irekia da eta herritarrak bertaratu daitezke.



Gobernantza berria hizpide

Lasarte-Oriako EAJk gobernantza berriaren inguruko hitzaldiak antolatu ditu bere alderdikide eta lagunei zuzenduta. Estitxu Alkorta eta Boris Nogales zinegotziek eta Jon Antxordoki herri buru batzarreko kideak aurkeztu zituzten asteazkenean.

"Gipuzkoako eta Lasarte-Oriak berak aldaketa behar du, egitasmo berri bat. Gobernu onean oinarritutako politika publikoak, herritarrentzat gertukoak, krisiari modu partekatuan aurre egiteko eta ongizatearen etorkizuna bermatzeko plangintza zorrotza eta erabakigarria," azaldu zuen Estitxu Alkorta EAJko bozeramaileak.

Horretarako hitzaldi sorta bat antolatu dute. Agerraldian azaldu zuten, Xabier Iturbe Kutzako lehendakari ohia edo Joxean Muñoz Kultura sailburuordearen hitzaldiak entzun ahal izan dituzte alderdikide eta lagunek eta



Antxordoki, Alkorta eta Nogales EAJko kideak hitzaldien aurkezpenan.

hauei jarraipena emateko beste bi hitzaldi antolatu dituzte.

Batetik, gaur, ekainaren 9an, Imanol Lasa Diputazioko Partehartzeko zuzendaria ohiak Gobernuaren oinarriari buruz hitza egingo du eta "Ongizatearen etorkizuna" izango da Eider Mendoza, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariordeak eta Maite Peña, Errenterriako

EAJko bozeramaileak ekainaren 18an eskainiko duten hitzaldiaren izena.

Hitzaldiak Manuel Lekuona kultur-etxean izango dira, 19:00etatik aurrera. "Batzo-kian egin ditugu lehen biak eta leku faltan egon gara" azaldu zuten.

Lasarte-Oriako EAJk alderdikide eta lagunei hitzaldi hauetara hurbiltzeko gonbita egiten die

GIZARTEA

Iñigo Urkullu lehendakaria Michelinen

Ostiralean, Iñigo Urkullu Lehendakariak herriko Michelin lantegia bisitatu zuen. Michelinen 80 urte bete ditu eta honen aitzakitan instalazioetatik bisita egin zuen Arantza Tapia sailburuarekin batera.

Michelingo arduradunekin batera museoan hainbat azalpen jaso zituen bertan egiten ziren gorpilen inguruan baita egungo fabrikazioari buruz. Lehendakariak hitza hartu zuen ere eta goraiatu zuen lantegiak egindako ibilbide luzea eta langileekiko duen konpromezuagatik.

Gaineratu zuen, lantegiak urte guzti hauetan garai berrietara ondo moldatzen jakin duela eta adibidea eta erreferentzia dela Euskadin zein atzerrian.

SAN PEDRO

Sorgin dantzako entseguak

Ekainaren 27an prest egoteko sorgin dantzako entseguak hasi dira. Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira Okendo plazan, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Azken saioa ekainaren 26an izango da.

Euria eginez gero, antolatzaileek jakin arazten dute Landaberri-Garaikoetxea eraikinean egingo liratekeela saioak. Ttakun elkarteak herritarrak gonbidatzen ditu entseguetara hurbildu eta ekintzan parte hartzera.



Eskutik helduta adin guztietako herritarrak ikusi ahak izan ziren giza katean parte hartzen.

950 herritar erabakitzeke eskubidearen alde

Uharte-Arakileko 89. kilometroan lasarteoriatarren festa izan zen

Uharte-Arakilen kokatutako 89. kilometroa betetzea egokitu zitzaion Lasarte-Oriari eta antolatzaileen aurreikuspenak aise gainditu ziren atzokoan, guztira 950 lagunek parte hartu zuten Gure Esku Dago ekimenak sustatutako giza katean. Herritarren artean, jai giroa nagusi izan zen.

MAIDER AZURMENDI

Erabakitzeke eskubidea aldarrikatzeko Gure Esku Dago egitasmoak bultzatutako giza katearen arrakasta erabatekoa izan zen.

Lasarte-Oriari 89.kilometroa betetzea egokitzen zitzaion eta herritarrek ez zuten hutsik egin. Antolakuntzak aurreikusitako kopurua ere gainditu egin zen. Saldutako metroak 732 izan zirela aipatu zuten herriko antolakuntza lantaldean aritutako kideek. Hala ere, eguraldia lagun, herritar gehiago animatu ziren Uharte-Arakilera gerturatu eta erabakitzeke eskubidearen aldeko giza katean parte hartzera.

Lasarte-Oriatik 8 autobus irten ziren goizeko 9etan. Jendea puntual iritsi zen hitzordura motxila, txano, eguzkitako krema, aulki, nebera... ondo prestatuta. Eta eskerrak, izan ere, eguzkipean ordu luzeak egin ziren.

Autobusa Uharte-Arakilen utzi eta kilometroa osatu baino lehen, hamaiketako erraldoia egiteko aukera izan zen. Antolakuntzatik sagardoa eta freskagarriak eraman ziren eta txistularien doinuez lagunduta, festa giroari hasiera eman zitzaion. Hamaikak aldera, dena prestatzen hasteko garaia heldu zen. Bi alde-tan banatuta, kilometroa osatzera ekin zitzaion. Antolakuntzakoek txirringak era-

man zizuten kilometroan gora eta behera ibiltzeko. Hauek ziurtatu zuten ibilbidean hutsunerik ez zela uzten.

Eguerdirako, eskutik helduta zeuden herritarrak. Adarraren doinuak eman zion hasiera giza kateari eta jai giroan, ikurrinak astinduta eta umore onez igaro zen ordu erdia. Amaitzean, pixkanaka eta berriz musikaz lagunduta, autobusetara egin zen ibilbidea Etxarri-Aranatzera abiatzeko.

Autobus ilara luzeak sortu ziren Etxarriko sarreran baina azkenean, ekitaldi nagusira iritsi ziren lasarteoriatarrek ere. Ostean, batzuek etxerako bidea hartu zuten eta besteek, parranda arratsaldeko zazpirak arte luzatu zuten.

Etxera bueltan, egindakoa denbora luzean gogoratze-ko izango zela aipatzen zen "historikoa".



Autobuserako deia egin zuten herriko kaleetan barrena txistulariek, antolakuntzako kideek gogotik egin zuten lan.



Lekua hartuta, ordua iritsi bitartean dantzan aritu ziren gazteak.



Herritarrek adi jarraitu zituzten antolakuntzako azalpenak.



Uharte-Arakilera iritsi eta hamaiketako egiteko aukera izan zen giza katea osatu baino lehen.

EMAKUMEEN BIZITZA HOBETZEAREN GAINEAN ENTITATE PRIBATUEK EZ DUTE ERANTZUKIZUNA BEREGANATU BEHARKO DUTE.

* Onartzea 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Araua, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak sartzeaz buruzkoa. Hor zehazten da berdintasuneko hainbat plan lantzeko eskakizuna, honelako alderdiak jasoko dituztenak: lan baldintzak hobetzea, sektore maskulinizatueta emakumeak kontratatzea, bateragarritasuna eta ardura partekatua sustatzea, indarkeria matxistaren arloan prebenitzea eta esku hartzea, eta abar.

** Sozietateen mokinzen gaineko zergaren aurreproiektuan, berdintasun arloko zerga pizgamiak lehenesteko proposamena, alderdi hauek kontuan hartuta: emakumeen enplegu mugagabearen sorrera eta emakumeen lan baldintzen hobekuntza; ardura partekatua, eta bizitza pertsonalaren, familia bizitzaren eta lan bizitzaren bateragarritasuna; jarrera sexisten gaineko prebenzioa eta jazarpen sexistaren gaineko esku-hartzea; eta abar.

*** 2013an, bikoiztu egin dira berdintasun klausulen kopurua, eta halakoak jasotzen dituzten kontratazio espedienteen kopurua ere bai: lehen, 32 kontratu ziren -13,7 milioi euro, guztira-, eta orain, berriz, 71 kontratu -26,9 milioi euro, guztira-.

**** 2013an, ugalduta egin dira berdintasun klausulak, baina halako klausulak jasotzen dituzten diru laguntza deialdiak ere.

Eguerdirako giza katea prest zuten lasarteoriatarrek.

LABURRAK.-

Chourraut Europako txapeldunorde

Maialen Chourraut palista maiatzaren 30etik ekainaren 1era Vienan izan zen Europako txapelketan eta K1 mailako taldekako lehiaketan txapeldunordetza lortu zuen. Banaka ere parte hartu zuen herriko palistak baina ez zuen zorte handirik izan finalurrekoan.

Maialen Chourraut herriarrak nahiaz eta ontzi berriarekin lehiatu, denbora ederra egin zuen sailkapeneta eta lehen postuetan izan zen, zazpigarren. Tamalez, finalaren atarikoan lau akats egin zituen eta hemezortzigarren izan zen.

Hala ere, Marta Martinez eta Irati Goikoetxearekin batera, taldekako txapelketan kendu ahal izan zuen arantzua. Honetan jaitsialdi ederra egin zuen taldeak eta bigarren izan ziren Txekiar Errepublikaren atzetik.

Asteburu honetan, berriz, Londonen izan da Munduko Kopan lehiatzen.



IGERIKETA.-

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak primeran

Dominak, Euskadiko txapelketarako txartelak eta marka pertsonal ugari

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak Euskadiko XXXIII Eskolarteko Kirol jokoak eta VIII Richard Oribe Saria lehiatu dira aste hauetan. Dominak, marka pertsonalak eta Euskal Herriko txapelketarako gutxieneko markak egin dituzte.

TXINTXARRI

Euskadiko Eskolarteko kirol jokoetan maiatzaren 24an, Irati Arzalluz, Jon Soto, Jon Ibarгойen eta Beñat Alkorta Gasteizen izan ziren Gipuzkoako Selektioarekin. Hauek urre bat, hiru zilar eta lau marka pertsonal egin zituzten.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu zigunez, oso txukun aritu ziren gure taldekideak.

Irati Arzalluzek zilarra eskuratu zuen 100 m. estiloak proban eta 100 m. bular proban laugarren izan zen.

Beñat Alkortak 100 m. estiloetan hartu zuen parte eta marka pertsonala egin eta zilarra eskuratu zuen.

Jon Ibarгойenek, besteek baina froga gehiago izan zituen 4x100 m. libre erreleban ere parte hartu zuelako. Bere froga indibidualetan marka pertsonalak egin zituen. 200 m. libren seigarren izan zen bere marka 5 segundotan hobetuz. 100 m. libre proban ere bere marka segundo batean hobetu eta zila-

rra eskuratu zuen. Erreleban Gipuzkoako taldearekin lehen postua eskuratu zuen.

Jon Sotok goizeko jardunaldian bakarrik hartu zuen parte gaitotu zelako. 100 m. bular proban zazpigarren izan zen bere marka pertsonala hobetuz.

Richar Oribe saria

Bestalde, maiatzaren 31ean, errendimenduko ibilbideko igerilariak Paco Yoldin izan ziren VIII Richard Oribe Sarian parte hartzen. Borja Apeztegiaren mutilek marka pertsonal ugari hobetu eta Euskal Herriko Txapelketarako zenbait gutxieneko berri lortu zituzten.

Mikel Esnalek 50 m. bular proban marka pertsonala egin zuen. Haitz Mitxelenak, berriz, 100 m. libre eta 50 m. bular probako marka pertsonalak hobetu zituen. 100 m. libreko markarekin gainera, Euskal Herriko Txapelketan 4x100 m. libre erreleboan parte hartzeko gutxienekoa lortu zuen taldeak.

Naiara Lizasok 50 m. bular proban marka pertsonala lortu



Igerilariak ederki ari dira lehiatu udako denboraldian.

BURUNTZALDEA IKT

zuen, baita Jone Vazquez-ek ere. Garazi Alkortak 100 m. libre proban marka pertsonala lortu zuen, baita 400 libreetan ere. Azken honetan gainera, 200 m.-tako pasean bere marka ere hobetzea lortu.

Infantil mailan, Nahia Jie Villamedianak 4 marka pertsonal lortu zituen; 200 m. estiloetan, 50 m. bizkar proban, 400 m. libre proban eta honetan 200 m.-tako pasean. Nahia Jiek lau probetarako Euskal Herriko Txapelketarako gutxieneko markak lortu zituen.

Nora Irazusta hiru probetan lehiatu zen eta guztira bost marka pertsonal egin zituen, 100 m. libreetan, 200 m. bizkar proban eta 100 m.-tako pasean eta 400 m. libreetan eta 200 m.-etako pasean. Norak ere Euskal Herriko

Txapelketarako gutxieneko markak lortu zituen 100 m. libre eta 400 m. libre probetarako.

Janire Berasartek bi marka pertsonal hobetu zituen; bata 50 m. bular proban eta bestea 400 m. libreetan.

Jon Sotok 100 m. libreetan, 400 m. libreetan eta 50 m. bular probetan lortu zituen marka berriak. Horretaz gain, 400 m. libre probako 200 m.-etako pasean ere marka pertsonala egin zuen.

Jon Ibarгойen proba berdinetan aritu zen eta honek ere guztietan marka pertsonalak lortu zituen, baita 400 m. libre probako 200 m.-etako pasean ere.

Azkenik, Beñat Alkortak 200 m. estiloetan 50 m. bizkar proban eta 400 m. libreetan egin zituen marka pertsonalak.

ERRUGBIA.-



Gipuzkoako selektzio eta Stade Hendayais taldeko mutilak ederki ibili ziren.

Omenaldi ederra

Gipuzkoa eta Iparraldeko hainbat errugbi taldeetako kideak bildu ziren larunbatean Kirol gunean Jesus Erro Castillori omenaldia egiteko.

Donostiarra iazko irailean zendu zen eta gure lurraldean errugbiaren sustatzaileetako bat izan zen, 23 errugbi talde baino gehiago sortu zituen. Horien artean Beltzak taldea.

Omenaldi xumea izan zen. Stade Hendayais taldeari

eta Beltzak taldeko bi kideri plakak eman zizkieten. Minutuko isilunean egin eta hiru partida jokatu ziren.

Lehenik Gipuzkoako 18 urte azpiko selektzioak Stade Hendayais-en aurka jokatu zuen. Ostean, Atletik Ondarraitz eta Txanpizaleak taldeen partida ikusi zen. Azkenik Ordizia eta hainbat taldeetako beteranoen arteko norgehiagoka izan zen.

ATLETISMOA.-

Euskadi eta Gipuzkoako txapeldunak atletismoan

LOKEko atletak lehiaketaz lehiaketa izan dira azken asteetan. Euskadiko junior eta jubenil txapelketa, Gipuzkoako txapelketa, Euskal Jokoak edo Gazteen Joko Olinpikoetako sailkapen probetan izan ziren parte hartzen eta hainbat domina eskuratu zituzten.

Maiatzaren 24 eta 25ean, junior eta jubenil mailako Euskadiko txapelketan lau urrezko domina, hiru zilarrezko eta brontzezko bi ekarri zituzten herrira.

Eneritz Busto gazteak altueran garaile izan zen eta 100 m. hesi lasterketan hirugarren amaitu zuen.

Oihana Igarrikere ere kolore berdineko dominak eskuratu zituen jaurtiketa probetan, urrea eta brontzezkoa pisuan.

Ane Galardik jauzi hirukoitzean lortu zuen txapela.

Txapeldunorde izan ziren Yeray Veroniz 100 m. lasterketan; Idoia Olasagasti 200 m. proba azkarrean eta Maider Rekondok diska jaurtiketan.

Hau guztiaz gain, 4x100 m.-ko nesken erreleba ere irabazi zuen LOKEk.

Gipuzkoako txapelketa

Bestalde, maiatzak 31 eta ekainak 1ean, Ordizian eta Donostian izan ziren Gipuzkoako txapelketan ere izan ziren. Hiru txapeldun berri eta txapeldun orde bat izan ziren bertan.

400 m. hesi lasterketan Gai-zka Ormazabal irabazle izan zen. Eta jauzi probetan lortu ziren beste bi urrezko dominak. Eneritz Bustok altueran eta jauzi hirukoitzean Ane Galardik.

Bestalde, Jon Altuna podiumeko bigarren mailan izan zen 800 m. lasterketan.

Baku eta Euskal Jokoak

Itoitz Rodriguez gaztea ez zen txapelketa hauetan izan. Maiatzaren 29tik ekainaren 1era, Gazteen Joko Olinpikoetako sailkapen probetan lehiatu baitzen Bakun, Azerbaijanen. Europako onenen artean, hamabigarren amaitu zuen usurbildarrak.

Euskal Jokoetan berriz, Landaberri ikastolako Xalba Otxandorena gaztea Gipuzkoako Selektioarekin lehiatu zen. Lasarteoriatarrak 80 metro hesi txapelketan hirugarren postua egin zuen.

Eta atletek ez dute atsedetik, asteburu honetan, Hondarribiko BAT taldearekin Espainako ligako bigarren jardunaldian parte hartu dute, neskak Valentzian izan dira eta mutilak L'Hospitalet de Llobregat.

Agenda

Osteguna 12, 18:00etan, Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa



Musikaren historian murgiltzen

Udal Musika Eskolako piano eta kama-
ra ikasle eta irakasleek entzunaldia
antolatu dute ikasturtea agurtzeko.
Entzunaldia musikaren garai ezberdinak
ezagutzeko pentsatuta dago. Bertan
garai bakoitzeko konpositoreen berri
emango dute, konpositoreen biogra-
fiak, bitxikeriak...

Zubietako taldeen antzerkiak ikusteko aukera.

Asteazkena 11, 12:30ean

DBH3-4-ko gazteen antzezlan eta dan-
tza garaikide emanaldia izango dira.

Osteguna 12, 21:00etan

Helduen antzezlan eta dantza garaiki-
de koreografiez gozatzeko aukera.

Ostirala 13, 22:00etan

Gazte taldeek Izarren argia antzezlana
eta dantza garaikideko pieza berezi bat
aurkeztuko dute.

Goizeko saioak ikastetxeei zuzenduak.
Arratsaldekoak gurasoentzat, sarrera,
1 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekaina amaiera arte

Euskal Herriko 2. Batukaden Topaketako
argazki erakusketa ikusgai izango da.

EMAKUMEEN ZENTROA

Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra

Gehituk antolatutako "Emakume eta
gizon homosexualak historian zehar"
erakusketa ikusgai.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Asteazkena 11, 20:30ean

Adam Bomb gitarra jole amerikarraren
kontzertua izango da. Bere kantan eta
ACDC, KISS edo VAN HALEN taldee-
tako doinuak ere eskainiko ditu. Sarre-
ra aurretik 7 euro, egunean 10 euro.



Ostirala 13, 23:30ean

Positive Reggae gaua izango da.
Ghetto Solja abeslaria, Djplan Kunta
Kunta DI Fyah eta Ghetto FyahSOund
Sytmen dj-a eta Boja man eta Gustab
aleslariekin gozatzeko gaua. Sarrera, 4
euro.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 11, 19:00etan

Udal Dantza eskolako taldeek ikasturte
amaierako emanaldia eskainiko dute.
Dantza garaikide eta ballet koreogra-
fiak ikusgai.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 10, 18:00etan

6 urte baino gehiago duten haur eta
gaztetxoei zuzendutako ipuin irakurke-
ta izango da.

Antzerki eta dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Astelehena 09, 10:45ean eta
19:00etan**

Landaberriko LH4 eta LH5 mailako
gaztetxoen antzerkiak ikusteko aukera.
Astearte 10, 11:00etan eta 19:00etan
Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko eta

Usurbil

Hitzaldiak

SUTEGIKO AUDITORIOA

Astearte 10-Osteguna 12, 19:00etan

Nafartarrak taldeak hitzaldi zikloa
antolatu du. Noingo gudua, Eskozia
eta Lehenengo Mundu Gerra Euskal
Herrian izango dira gaiak. Beñi Agirre
historialaria eta Lander Larunbe Ander-
son itzultzailea izango dira hizlariak.
Doan.

Herritarren txokoa

Biyak Bat Brionesera

Biyak Bat elkarteko kideek ekainaren
19rako ibilaldia antolatu dute
Errioxako Briones herrira.

Goizean "Dinastia Vivanco" ardo
museoa bisitatuko dute eta arratsal-
dean berriz, Briones ezagutzeko auke-
ra izango dute bertatik ibilbide bat
eginda. 8:00etan aterako dira parte
hartzaileak Biyak Baten egoitzatik
Brionesera.

Izena emateko irekia dago. Bazkideek
35 euro ordaindu beharko dituzte eta
ez bazkideek berriz, 40 euro.

Soka-dantza entseguak

Erketz EDT eta Erketzeko lagunak San
Juan egun bezperako soka-dantza
prestatzen hasi dira.

Entseguak astelehenero izango dira
Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko
Zumaburuko eraikinean 20:00etatik
aurrera.

Taldeak herritarrak gonbidatzen ditu
soka-dantzan parte hartzera.

Galdutako pultsera

Haur baten urrezko pultsera bat aur-
kitu dut inskripzio bat dauka. Deitu
620179188 telefonora. Izaskun

Galdutako gauzak

Azkorteko Erromeria egunean Ttakun
elkarteko kideek Quechua markako
txaleko beltza, L tamainakoa aurkitu-
zuten arkupeko bankuetan.

Ttakuneko bulegoan dago jantzia
beraz galdu duenak harrera orduan
jaso dezake.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian
martxan da. Kooperatibaren xedea
janarien kontsumo arduratsu bat iza-
tearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen
duen baratza, Beizaman kokatua
dago. Astelehenero, Danok Kide
elkarteko lokalean banatzen dira
barazki eta frutak, garaian garaikoak
eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gus-
tuko dutenentzat ateak zabalik dituz-
tela jakitera eman dute Uztarokoek.
Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Sarean

Aditzak ikasteko aplikazioa

Euskara ikasten dutenentzat
erronka handietan aditzak ikas-
tea dela diote. Baina betiko
taula buruz ikasi beharrean,
beste aukera bat ere badago,
sakelean eramatea. Oraingoan,
aditzak ikasi edo zalantzak
argitzeko mugikorrentzako
aplikazioa aurkezten dugu,
Aditz Laguntzailea.

Honek euskarazko aditzak
modu azkar batean jokatzeko
balio du eta


Lehenik, aditzaren modua
aukeratu behar duzu: Indikati-
boa, Baldintza, Ahalera, Sub-
juntiboa edo Agintera.

Ondoren, erabiliko dituzun
personak jarri behar dituzu eta
"ekin" botoiari eman behar
zaio.

Adibidez, erabiltzaileak "Ni-
Hari" jarri nahi du subjuntio-
boan. Orduan, "Nor" markan
"Ni" pertsona jarri behar da, eta "Nori" markan berriz, "Hari". "Nork" marka ez denez erabiliko, hiru marrazkoekin utziko da.

Botoia sakatu ostean, behelaldean aditzak jokatura agertzen dira, modu horretako denbora guztietan.

Eneko Sampedrok garatutako aplikazioa hau eta Android plataformara-
rako dago eskuragarri Google Play-en.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argi-
taratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Besteak beste, Joxe Zapirain eta Inaxio Otaegiri eman zitzaizen oroigarria,



Giro ederra izan zen goizean zehar kirol guneko bolatokian.



Euskadiko toka jokalaririk onenak Okendon izan ziren lehian.



Amaitzean saria eta oroigarria jaso zuten bola eta toka jokalariek taldeko argazkia atera zuten.

Giro ederra Euskadiko txapelketan

Pedro Agirre eta Garbiñe Alustiza bola-jokoan eta Antonio Amondarain tokan izan ziren garaile

Larunbata goizean, giro ederra zegoen, aproposa Euskadiko bola-joko eta toka txapelketarako. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bolari eta toka jokalaririk onenak bildu ziren gure herrian. Lehia handia izan zen eta Okendo plazan eguzkiari ere aurre egin behar izan zioten toka jokalariek.

TXINTXARRI

Euskadiko bola-joko eta toka txapelketak burutu ziren larunbatean Lasarte-Orian.

Kirol guneko bolatokian Euskadiko 60 bat bolari bildu ziren goizeko 8:00etatik aurrera lehiaketan parte hartzeko.

Giro ederrean bi txandatan bederatzi brilak botatzen saiatu ziren guztiak, emakume, zein gizonak.

Toka txapelketa

Okendo plazan berriz, eguzkiaren begiradapean, Euskadiko toka txapelketa izan zen. Honetan ere Euskal Erkidegoko jokalaririk onenak eta

hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Sariak

Txapelketak amaitzerakoan, guztiek zikiro jan ederraz gozatu zuten Udal jangelan.

Eta indarrak batu ostean, kalejiran Okendo plazara abiatu ziren guztiak.

Bertan saribanaketa egin zen. Gipuzkoako federazioko Luis Azpiolea lehendakaria, Taxio Arrizabalaga Udal kirol saileko burua, Ostadar SKT-ko Imanol Bardaji, Inaxio Otaegi, Joxe Zapirain, Joxean Montes eta Joxean Lasa izan ziren sariak banatzen.

Lurralde bakoitzeko txapelidunen sariak banatu ziren lehenik: Gipuzkoako txapel-

dunak, Rosa Santos eta Xabier Iruretagorena; Arabakoak, Bea Isasi eta Julio Izarra eta Bizkaikoak Naroa Izurza eta Iñigo Uriel.

Ondoren, bola-jokoan Euskadiko txapelidunen izenak jakinarazi ziren, Pedro Agirre legazpiarra eta Garbiñe Alustiza zeraindarra.

Tokan aldiz, Antonio Amondarainek eraman zuen txapela.

Zazpitan hoberenaren saria, berriz, Luis Azpiolea zeraindarrarentzat izan zen.

Omenaldia

Honetaz guztiaz gain, Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak Gipuzkoan bola-jokoa sustatu eta mantentzeko urteetan egin duten lanarengatik omenaldi txikia egin nahi izan zien lau pertsonei, Antonio Alustiza, Antonio Goenaga eta Joxe Zapirain eta Inaxio Otaegi lasarteoriatarrei, hain zuzen ere.



Haurrek ere bola-jokoan ibiltzeko aukera izan zuten larunbata arratsaldean. Batzuk ederki moldatu ziren bola jaurtitzeko.